

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroak pabiloia ireki du Estatu Batuetan egiten den energia eolikoaren azoka handiengan

Foru Erkidegoak 15 enpresatako ordezkariak izan ditu eta estatuko ordezkartzarik handiena izan da

Miércoles, 25 de mayo de 2011

Nafarroak pabiloia ireki du [Windpower azokan](#). Azoka hori energia eolikoaren industrian munduan egiten den topaketa profesionalik garrantzitsuen da eta aste honetan Kaliforniako Anaheim (Estatu Batuak) hirian da.

Nafarroako ordezkartza 15 enpresak osatzen dute eta Begoña Urien Nafarroako Gobernuako jarduneko Enpresen alorreko zuzendari nagusia da buru. Topaketara joan da Carlos López Foru Gobernuako Merkataritza Zerbituko zuzendariarekin eta Luisa Balanza Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberako teknikari ordezkaria denarekin.

Estatuko 25 enpresak osatzen dute Windpower azokako Espainiako pabiloia eta Kanpo Merkataritzako Espainiako Institutuaren laguntza du. Nafarroako 15 enprekin batera, Gipuzkoako lau, Bartzelonako bi, Madrilgo bi, Bizkaiko bat eta Burgoseko bat joan dira topaketara. Nafarroako Gobernuak, Foru Erkidegoko energia berriztagarrien alorrean duen garapen maila izanik, bere stand propioa du ahalik enpresa gehien hartzeko, baina betiere Espainia markari lotura.

Nafarroako Gobernuak, Sodena sozietate publikoaren bidez, eta Nafarroako Industria eta Merkataritza Ganberak koordinatu eta finantzatu dute Nafarroa Windpower azokan egon ahal izatea. Hauek dira topaketan parte hartzen ari diren energia eolikoaren sektoreko Nafarroako enpresak: Endaki 2 (Lekunberrin du egoitza), Fluitecnik (Orkoien), Frenos Iruña (Barbatin), IED Greenpower (Aizoain), Industrial Barranquesa (Lakuntza), Industrias Laneko (Uhartte Arakil), Leadernet Computer (Orikain), M. Torres Olvega Industrial (Berriobeiti), Proyectos Integrales y Logísticos (San Adrián), Sumelec Navarra (Noain) eta TSF (Arazuri). Nafarroan egoitza duten estatuko beste lau enpresa handi ere han dira: Acciona, Gamesa, Energia Berriztagarrien Zentro Nazionala (CENER) eta Ingeteam.

Windpower azoka energia eolikoaren industriako munduko azokarik



Nafarroako ordezkariak Windpower azokan

handiena da. The Windpower Conference and Exhibition AWEA (American Wind Energy Association) erakundeak antolatzen du eta munduan dauden energia eolikoaren inguruko enpresa nagusiak elkartzen dira bertan. Lanbide arteko topaketa da eta, han, enpresek haien esperientziak eta erronkak azaltzen dituzte energia berriztagarrien etorkizunerako irtenbide berriak lortzeko. Energia eolikoaren industriako 20.000 profesional, aditu, lider eta ikerlari baino gehiago izaten dira azokan eta 27.000 metro koadroko azalera 1.000 erakusketari baino gehiago egoten dira.

Lan topaketa

Azokan horretan Nafarroaren parte hartzeari esker, lan topaketa burutu ahal izan da; horri esker, enpresek eskaintzen dituzten produktuak aurkeztu, Ipar Amerikako merkatuaren ezaugarriak eta aukerak zeintzuk diren jakin eta merkataritzako lehen kontaktuak ezarriko dira. Begoña Urienek Foru Erkidegoko energia berriztagarrien garapena, batez ere energia eolikoaren inguruan, azaltzeko hitzaldia eman zuen. Mintzaldian, Urienek 2020rako Nafarroako III. Energia Planaren helburu nagusiak zeintzuk diren azaldu zuen, baita jendeak energia minieolika, ibilgailu elektrikoak eta sare adimenduak bultzatzeak eta energia behar den tokietan sortzeak ekarri dituen azken aurrerapenen xehetasunak eman ere.

Nafarroako Gobernuako Enpresaren alorreko zuzendari nagusiak azpimarratu zuen Nafarroako ehun bat enpresa energia garbiekin loturiko zerbitzuak eskaintzeko gai direla eta Nafarroak nazioarteko merkatuetan lehiatzeko prest dagoen sektore emankorra duela, hori guztia, dagoeneko Estatu Batuetan dauden Nafarroako enpresa handien bidea jarraituz.

Windpower azoka ibiltaria da eta Estatu Batuetako hainbat hiritan egiten da. 2010ean Dallasen izan zen eta 2009an Chicagon. Aurreko urteko azokan 23.000 bisitari baino gehiago izan ziren eta 22 herrialdeko 1.393 erakusketarik hartu zuten parte.

Aurten Kalifornia aukeratu dute energia eolikoaren inguruko proiektu nagusiak garatzen lehen estatua izan zelako eta gainerako estatuentzako jarraibidea izan delako beti. 2000. urtera arte, Kalifornian, gainerako estatu guztiek batera baino energia eoliko gehiago erabili zuten. Duela gutxi, energia berriztagarrien inguruko arau berri bat onetsi dute estatu horretan; arau horri jarraiki, sektoreko enpresek, 2020rako, elektrizitatearen % 33 karbono emisio baxuko iturrietatik sortzeko behar diren prozesuak burutu beharko dituzte.